

"TXIRRIKIZ"

I.

Kirru eta Peli eskola mutikoak, egun baten, herriko, plazan intxaurez "bibika" jolasten ari direla "Txirrikiz" goitzenarekin ezaguna den neskato etorkina agertzen da.

Peli (*barrezka eta txutxumutxuka Peliri*):

Ene! Horra non doan Txirrikiz! Gure kortako asto zaharra baino ere narrasago zabilek beltz hori! Horrek zaukak itxura horrek! Irri eta parre egin behar zioagu. Kirru, begira! Gurekin jolastu nahi izango dik. Goazen, zertan edo hartan ziria sartu behar zioagu-ta!

Kirru (*haserre*):

Ni ez noak neskari kanpokoia izateagatik irririk egiten. Pertsonak iraintzea ez dela batere zuzena esaten dik beti gure amonak. Beraz, horrelakorik ez!

Peli:

A ze leloa! Amonaren esanak buruan darabilzkik oraindik ere? Nik atsoen esanei katuak sagarrari adina jaramon egiten zieat. Atsoen esanak zehatz-mehatz egiten bahabil, horraitio, oilo ta erdi izango haiz beti!

Kirru:

Atsoen esana dela nahiz ez dela, hire esanak direla nahiz ez direla, ni ez noak Txirrikizi irririk egiten eta kito! Hik esan nahiz horrek esan, txarra beti txar eta ona beti on. Hik ere, Peli, Txirrikizi barrerik egingo ez bahio askoz hobe!

Kirruk alde egiten du plazatik Peliren planak ez jarraitzearren.

Peli: *(Kirruri)* Hoa pikutara!!!

Baina Pelik bere lagunaren esanaren jaramonik egin gabe atzetik arinka joanda, neskari irri eta parre egiten dio kanta zatar hau asmatuz ...

Peli: *(kantatzen)*

Zertara etorri haiz
Txirrikiz mirrikiz?
Ez al dun bete behar
sabela txerrikiz?

Txirrikizek, isekazko hitz iraingarri hauek entzun arren, mutikoari ez dio haserrerik egiten eta aurpegi otzan otzanez begirakune gozoa eginez ...

Txirrikiz:

Ai, mutiko polit hori, erreka-ertzeko txori: ez hadi horren gaiztoa izan, hi bezalako umeez, eta batez ere hirekin jolastu nahi duenaz trufatzea ez al dakik itsusia dela?

Peli:

Hori bai txotxolokeria!!

Txirrikiz:

Holako isekarik eziok inori berriro egin.

Peli: *(trufari eta kantari)*

Txirrikiz mirrikiz
sabela bete txerrikiz...

Poltsatik gauza erakargarri bat atera eta ...

Txirrikiz:

Ikus ezak, bada, eskuetan daukadan gauza polit hau.

Peli:

Hara! Zer da?

Txirrikiz:

Ni bizi naizen urruneko lurraldetik ekarritako "zortearen argi miragarria".

Peli:

Bai zera! Esaidan, ba: Ze mirari arraio egiten ditun?

Txirrikiz:

Argi honi, pertsona zintzo eta onen eskuek laztanek (igurtziek), hots zoragarriak eragiten zizkiotek, hain soinu atsegingarria ze, izan ere, hiru mila orkestrak dihardutela uste izaten ditek. Soinu zoragarrien hots gozoen botere magikoek ametsak egia bihurtzen ditiztek.

Peli:

Ea, erakutsi!

Txirrikiz:

Horretarako, zintzoa izan behar duk, baina.

Peli:

Txorakeriak!!

Txirrikiz:

Begira bada, mutiko, entzun arretaz eta ulertu ondo: on-ona izaten bahaiz, gauza miragarri hau, oraintxe bertan, heurtzat izango dela esaten diat. Beraz, mutiko, zintzoa izango haiz, ezta?

Peli:

Nola ez ba! Bai, ona izango naun eta emaidan hori behingoz!

Argitxoa eskuetan eduki bezain laster, mutikoari berriro bere neskari parre eta irri egiteko gogoa pizten zaio.

Peli: *(kantatuz)*

Beltz itsusia haiz hi
zikina ugari.
Ez dun ezer balio
ta izorra hadi.

Txirrikiz: *(Bere golkorako)*

Honen bigun eta maitekiro egin norberak, eta gainera oparia ere bere onerako gogo onez egin, eta, hala ta guztiz ere, mutikoaren gogoa ezin ezertara ere irabazi. Horrentzat, esan onak eta emaitzak eta abar, alfer- alferrekoak izan dira guztiak.

Peli: *(Kanta)*

Beltza haiz eta izorra hadi
ez dun balio zuri erdi.

Txirrikiz: *(Mutikoari dei zolia eta begirakune zorrotzez)*

Peli! Nik eginiko oparia heure zoritxarrerako izan zitekek!
Kontuz gero!!

Txirrikizek alde egiten du, eta Pelik argia ferekatu arren, tresnatxoak berak uste bezalako soinurik ez du egiten, zarata lakar beldurgarria baino ...

Peli (*hagin artean ikaraz*):

Ze arrai da hau? Adar zahar baten zarata lakarra baino ez duk egiten-da! Belarriak mintzeko egokia! Beltz hark esan dizkidanak gezurrak galantak! Gauza ona izateko asko behar dik, horregatio, berak.

Peli (*pixka bat lasaitu eta gero*):

Agian ez dut ondo ferekatu, berriro saiatuko naiz.

(Berriro ere ferekatzen du)

Kaka zaharra!! hauek eta astoaren putza dena bat!! Doala pikutara!!

Argitxoa jaurtitzeko puntuan dagoela Kirru agertzen da ...

Peli (*ikuslegoari zuzenduta*): E, begira nor datorren hortik! Baietz ziria sartu!

(Kirrurengana bueltatuz) Kirru! Hona hemen Txirrikiz beltz zakarraren emaitza miragarria.

Kirru:

Ondo polita duk, izan ere!

Peli:

Polita bai oso, hor daukak, bada, nire oparia. Nolako doinu polita egiten duen baheki! Igurtzi zak berehala, musika eta magia dik eta.

Kirru harriturik oparia onartzen du eta lehenengo laztanarekin batera mila txirulen hots gozoak bazter guztiak betetzen ditu ...

Kirru (*musika eten ondoren*):

Mila esker, Peli, opariagatik! Oso polita duk!

Peli: (*Ikusi ezin kaltegarria erakutsiz eta lagunari argia emanaz osorik damaturik*)

Ze opari eta ze opariondoko!!! Hi, Kirru: ekarridak hori!

Kirru:

Ez, ez diat emango.

Peli:

Bai, emango didak, neurea duk eta.

Kirru:

Hirea? Bai, zereko hirea! Eman, emana dela, ez al dakik? Lehen izango zuan hirea, baina orain inola ere ez!

Peli:

Lehen bai, eta orain ere bai. Hori beti neurea. Eta neurea denez gero, nahi edo ez, oraintxe bertan eman behar didak. Bestela...

Hori esan eta arrapaladan joanda, eskuetan duen argi miragarria kendu egiten dio eta jotzeko meatsuaren keinua gainera. Kirruk orduan seriooki emana kentzearen kanta luzatzen dio ...

Kirru:

Hark eman, nahiz horrek eman,
emana, emana duk...
Eman eta kendu

apoak atzamarrak kendu...

Emana emana duk
ezin didak kendu.
Portaera zakarra
behar duk zuzendu.

Emana didak kendu
ez hadi ostendu.
Apoak hiri Peli
atzamarrak kendu

(Kirru badoa).

II.

Pelik, bakarrik dagoela aprobetxatuz, argitxoa ferekatzen du berriro ere, une horretan inguruak eraldatzen dira bere aurrean eta beste mundu ezezagun batean sartzen da.

Peli:

Non nago? Kirru, Kirru, ez ni hemen bakarrik utzi!
Atzamarrak kendu eta Apoak direla eta ez direla... Baina nik laguntza behar dudanean ez Aporik ez inor ez duk azalduko, ez!!

Hori esan orduko Apo A eta Apo B jaunak azaltzen dira harri artetik.

Apo A:

Zer nahi duk?

Apo B:

Hori, zer nahi duk?

Peli:

Ba, zera, nola heldu naizen ez badakit ere, hemen nagok galduta eta ezin diat asmatu etxera bidea nondik den, eta horixe duk jakin nahi dudana.

Apo B:

Neronek eramango haut etxeraino.

Apo A:

Baina hik zer emango diguk horren ordez?

Peli:

Nik ez diat ezer! Bai argitxo bat nian baina ... (*argia topatzen saiatzen da baina desagertu da*)

Apo A:

Orduan ez zagok zereginik.

Apo B:

Ezin diagu lagundu!

Peli:

Tira, eskatzen didazuena egiteko prest nagok, nahi duzuena!

Apo A:

Beno ba, laguntxo.

Apo B:

Has gaitezen ba lanean.

Peli:

Bai, baina lehenengo nortzuk zareten esan behar didazue.

Apo A, B: (*kantuan*)

“Ez al dakizu gu nortzuk garen?”

Apo A:

Ni Apo A.

Apo B:

Ni Apo B.

Apo A:

Fantasiaren munduan gu geu
goren eder ta dotore.

Apo B:

Laminak (txu-txu), jentilak (txu-txu)
botatzea askoz hobe.

Apo A:

Fantasiaren herri berrian
geu gara gobernadore.

Apo A, B:

Gure arraza handiena da
egiguzue ohore.”

Peli: (*Txaloak*)

Apo A:

Argi daukak? Edo gure alde hago edo bestela... gure kontra!

Peli: (*Moztuta*)

Apo B:

Bestela esanda: Agintzen diaguna beteko duk, bestela, mokau batez ... rrrau!!!

Apo A:

Nagusi, ez ikaratu gure laguna, zapore txarra izango du jaten dugunean.

Peli:

Bai horixe! Lehen agindu dizuedan bezala, prest nagok eskatzen didazuena betetzeko.

Apo A:

Hi bai mutiko goxoa; barkatu, txintxo.

Peli:

Baina zertan lagunduko dizuet?

Apo B:

Hara motel: Erreka bazterrak garbi nahi ditiagu, laminarik gabe, izaki mota hori ezin kaltegarriagoa baita gure Fantasia berriaren eraikuntzarako.

Beraz, hoa hortik eta laminen artean nagusiena zein den aurkitu, bihotza kendu eta hona ekarri .

Peli:

Hori besterik ez bada, segituan beteko diat zuen guraria.
Nik etzieat beldurrik laminei! Agur!

Apo A - B:

Laster arte!

Pelik urruntzen da eta apoak elkarrekin txutxumutxuka gelditzen dira.

Apo B:

Hori duk eta! Laminen erreginaren bihotza eskuratzen badugu, lamina guztiek gure agindupean makurtu beharko dute.

Apo A:

Baina gure janaria bazoak! Eta galtzen bada, zer? Jarraitu diezaiogun badaezpada ere!

Apo B:

Lasai, laster etorriko duk laminaren bihotzarekin eta orduan izango diagu sabela betetzeko aukera. Ja, ja, ja ...

Peli (desagertu baino lehenago eta apoen elkarrizketa moztuz):

Aizue! Baina gero etxera eramango nauzue, ezta?

Apo B (gezurra disimulatuz):

Nola ez ba! Fida hadi gutaz, lagun!

Apo A (protestati):

Hori ez da egia, ezta jauna?

Apo B:

Noski, "aposki"! Bihotzarekin datorrenean, "rrrrau" jango diagu eta kito! Ja, ja, ...

Apo A:

Ederra sartu zioagu mutiko zozo eta goxoari!

Alde egiten dute eszenatik.

III.

Dekoraturia erreka bat da. Pelik erreka gaineko haitzetatik laminen dantza ikusten du, erdian laminen artean nagusia, ederrena, Txirrikizen antza handia duena.

LAMINA (kantuan):

“Eguzki, ilargi, izar	lamindaori eta
lamina kantari	laminzelaiari
Laminzulori eta	laminkobari eta
laminerrekarari	laminerrotari.”

Peli laminen kantaren eraginez liluraturik gelditzen da eta hauek horrela harrapatzen dute eurei begira aho zabal.

Peli:

Hauek bai dantzariak! Honako neskarik nire begiek ez ditek inoiz ikusi.

Lamia (haserre doinuarekin):

Oi, mutil zirtzil hori! Isilpetik guri hadi? Ikusgura behin asetzen duenak, berriro ere ase nahi izango dik, harrapatzen bahaut harrapatu...!

Peli:

Hauxe beltza, ondo nahiez txalotu eta haserretu! Noan berehala hemendik !

Lamina (doinua gozotuz):

Zer, motel? Zertan habil hemendik?

Peli:

Ezertan ere ez, joan egin behar dut eta utzi nazazu bakean.

Lamina:

Zelatan habil! ...Zer behar duk, ba?

Peli:

Mamu ikaragarrien bila nabil!

Lamina:

Ze mamu mota dira horiek?

Peli:

Laminen atzetik ari naiz!

Lamina:

Bai? Ba, lamina baten aurrez-aurre hago.

Peli:

Bai zera! Zuk ez duzu mamu itxurarik.

Lamina:

Mamu itxurarik izan ez arren, lamina nauk jaiotzatik hara.
Eta zer behar duk gugandik ba?

Peli:

Lamina nagusiaren bihotzaren bila etorri naiz...

Lamina:

Neu nauk laminarik zaharrena, baina ene bihotza eskuratzen
baduk, maitasunaren gaixotasunaren menpe geratuko haiz.

Peli:

Horiek kontuak baino ez dira, utzi dezagun berriketa eta emaidazu zure bihotza.

Lamina (eskaera onartuz):

Tori, bada, *mutiko polit hori, erreka-ertzeko txori.*

Peli:

Mila esker. Agur!

(Laminak alde egiten du eta Peli bakarrik geratzen denean bere baitan zerbait susmatzen du, maitasuna ote?)

Peli (konturatu gabe kantari):

“Ai ene bada! Oi ene bada!
bihotza daukat hausturik
hura bai hura neska liraina
utzi nau maitemindurik.
Haren ondotik alde egin behar
urrun beldurrak harturik.
Ai neska pitxin txirriketitxin
orain zer egingo dut nik?”

IV.

Trantze horretan harrapatzen dute apoek eta alferkerietan dagoelaren ustean astindu bat ematen diote ...

Apo A:

Zer, agindutakoa bete duk?

Peli:

Bai..... *(bere laminaren bihotza esku artean duela konturatzen denean, ezkutatu egiten du eta lagun berria babesten)* Ez! Ez diat mamu beldurgarririk ikusi!

Apo B:

Ez dituala erreketako dantzari nazkagarri horiek ikusi?

Peli:

Horiek? Horiek dituk laminak? Ba, ez dituk mamuak, nik sekula ez diat holako neska atseginik ikusi!

Apo A:

Mutiko kaiku hori! Horiexek dituk laminak! *(anaiari zuzenduta)* Hau ere erori duk sorgin horien hatzaparretan! Jan dezagun lehenbailehen eta kito!!

Apo Bk kokoteko batez isiltzen du bere anaia eta jarraitzen du ...

Apo B:

Oso ongi zakiagu zer sentitzen duan, baina ez tuntuna izan. Gure tratua gogoratu eta gero ongi pentsatu zer egin behar duan!

Peli:

Etzaukat zalantzarik, lagunok! Nik neska hori maite diat eta bere maitasuna lortuko diat.

Apo B *(haserre doinua hartuz poliki-poliki):*

Orain itsuturik hago, eta ezin duk ondo ikusi, baina agian ez duk hiretzako moduko neskatoa.

Peli:

Eta zergatik ez da, ba?

Apo A:

Begiraiok oinetara!

Apo B:

Giza oinak baditu, aurrera, baina ez baditu, kontuz gero!!
Aldendu hadi lehenbailehen haren ondotik!

Apo A:

Baina ez lehenengo haren bihotza lortu gabe!!

Peli: (*goibel*)

Ongi duk! (*apoek alde egiten dutenean, Peli egoeraz jabetzen hasten da*) Jan egingo nautela esan dute? Hauek ez naute etxera eraman nahi.

V.

Peli erre kara doa eta laminari deika hasten da.

Peli: Lamina!

Lamina agertzen da eta Peli laminaren oinak ikusten ahalegintzen da.

Lamina:

Zertan habil, *mutiko polit hori, erreka-ertzeko txori?*

Peli:

Zure oinak ikusi nahian.

Lamina:

Hobe ikusten ez badituk, bestela damutuko haiz.

Peli:

Ez, ikusi egin behar ditut!

Lamina:

Hire nahia hori bada...

(Laminak hankak uretatik atera eta erakusten dizkio)

Peli:

A a a a a a a !!!

Lamia:

Esan diat damutuko haizela!

(Pelik bihotza bertan behera uzten du, eta laminak hartu ondoren alde egiten du)

Peli:

Apoek harrapatzen banaute txiki-txiki egingo naute. Neuk bakar- bakarrik aurkitu beharko dut etxerako bidea.

Pelik alde egiten etxeko bidearen bila noraezean

VI.

Mendi artetik agertu eta zerua zeharkatzen duen bitartean, Mariurrika ikuslegoari zuzentzen da.

Mariurrika:

Peli Fantasian galduta dabil, Jentilen laguntza-beharra dauka etxera itzultzeko. Denon artean deituko diegu, baina ozenki, harria baino gorragoak dira ta!

Ikuslegoa:

Jentilak!!!

Jentilak harrizko pertsonaiak dira, itxuraz beldurgarriak baina jarreraz maitagarriak eta laguntzaile apartak. Jentilik zaharrena harrizko mendi handia bilakaturik dago aspaldian, hau da mintzatzen dena ...

Jentila:

Zer? Zer da zalaparta hau?!

Mariurrika:

Zuen laguntza behar duen mutiko bat dago Fantasian galduta.

Jentila:

Lasai! Utzi hori geure esku, berehalaxe konponduko duguta!

Mariurrika:

Bai, aurki zazue mutila eta jarri etxerako bidean.

Jentilak:

Hori eginda dago! Ala umeak, jolastera! ...Erne umetxoak, gizakia hurbil dago ta!

Bi jentilkume agertzen dira, Peli aurkitu eta berarekin jolasten hasten dira, baina jentil nagusiak jolasa moztu eta agindua luzatzen die ...

Jentila:

Mutila etxera bidaltzeko sasoia da, emaiozue berak ekarritakoa eta joan dadila. Aurrerantzean bera ez da inoiz gutaz gogoratuko, baina harrizko mendiak ikusten dituenean, jentilen artean bizi dela sentituko du.

Jentilek Txirrikizek ekarritako argia emango diote Peliri, honek hau ikusterakoan ...

Peli:

Hara! Kurruri kendu nion argia da ta! Etxera joateko premia larriagotu egin zait, argi hau bere jabeari itzuli behar diot eta!

Jentila:

Ongi motel, itzul zaitetz botere magikoak erabiliz eta emaiozu berea dena. Betira arte lagun!

Jentilek besarkatuz Peli agurtzen ari diren bitartean apoen ahotsak entzuten dira denek alde egiten dute.

VII.

Apoak agertzen dira, Peliren atzetik dabilizatela.

Apo B:

Non arraio sartu da mukitsu hori?

Apo A.:

Esan nian ba, galduko genuela!

Apo B:

Harrapatu eta txiki-txiki egingo diagu. Ikusiko ditik horrek ikusi beharrekoak!

Apo A:

Bai! Eta txikitu ondoren jan egingo diagu. Atzamarretatik hasi, belarriak...

Apo B:

...begiak...

Peli (*esandako guztia entzun ondoren egoerari aurre egitea erabakitzen du*): Hemen nauzue!

Apo B (*euren intentzioak ezkutatzuz*): Hau txiripa! Hau ezustekoa! Hire bila genbiltzaan, etxera joan behar duala gogoratu gaituk eta oraintxe bertan eramango haugu. Hator!

Peli:

Ba, orain ez diat zuen laguntza beharrik! Begira, honek eramango naik etxera eskatzen diodanean (*argia erakutsiz*).

Apo A:

Zer da hori?

Peli:

Nire lagunari kendu nion argi miragarria. Eta itzuli egin behar zioat lehenbailehen!

Apo B:

Argi miragarria esku artean izan eta bere jabeari itzuli behar dioala?! Hi bai kokoloa, hi!

Apo A:

Doala pikutara hire lagun hori! Geratu hadi gurekin, geuk zainduko diagu argitxo!

Peli:

Ez! Berea bada itzuli egin behar zioat! (*ikuslegoari*) Ezta, lagunok?

Ikuslegoa:

Bai!!!

Apo A:

Ez holakorik egin mutiko. Hi bezalako mutikoak jan egin behar ditiagu Fantasiaz jabetzeko

Apo B:

Isildu hadi! (*kokoteko batez anaiaren diskurtsoa ezkutatu nahian*) Pentsa ondo zer egin behar duan! Gure Fantasia berrian denetarik izango duk...

Apo A (*anaiaren tranpa berriari apaingarriak gehituz*):

...motoak, txikleak, patata paketeak...

Peli:

Nik neure herrira itzuli baino ez diat egin behar! Ezta, lagunok? (*ikuslegoari*)

Ikuslegoa:

Bai!!

Peli:

Ea ba, argitxoa, desagertu itzazu piztia hauek eta eraman nazazu etxera!

Argia igurtzi eta bere efektu miragarriekin Apoak harripetara desagertu egiten dira. Peli zorabio batean murgiltzen da.

VIII:

Zorabiotik irten eta bere herriko plazan dago ...

Peli:

Nola heldu naiz hona? Ez dago aporik! Dena amesgaiztoa izan da. (*tristatu egiten da*) Beraz bihotza urratu didan lamina ametsean geratu da! Baa! Ipuinak! (**NEGARREZ**)

Kirru eta Txirrikiz jolasten agertzen dira plazan. Peli horrela ikustean harriturik hurbiltzen zaizkio.

Kirru:

Zer gertatu zaik, Peli?

Peli:

Ee? Tori argia, heurea duk eta!
Eta zu nor zara? Nik ezagutzen zaitut!

Txirrikiz:

Txirrikiz naiz, *mutiko polit hori, erreka-ertzeko txori.*

Kirru:

Nola ez ba! Txirrikiz duk eta!

Peli:

Ez, Kirru! Lamina duk eta! ...Begira! *eta eransten dio aurpegia estaltzen dion beloa ...*

Kirru:

Ez duk ikusten ala? Txirrikiz duk...

Peli:

Lamina dela esan diat, Kirru! Bestela begiraiok oinetara!

(Begiratu ondoren)

Kirru:

Zer dute ,bada?

Peli:

Ezerrez, neure ametsak baino ez dituk! Barkatu, oso gaiztoa izan naiz zurekin... Baina nire ametseko lamina

bezalakoa duk! Kirru, utzidak hire argia, zerbait eskatu behar zioat eta!

Txirrikiz:

Bai, utziok eta froga dezala ea oraingoan zer nolako doinua ateratzen duen.

Kirru:

Bai motel! Hartzak eta froga zak ea hire nahiak egia bihurtzen diren.

Peli *Txirrikizi begira argiari eskaera egiten dio:*

.....mesedez!

Argiaren soinuarekin dantzan egiten dute hiru gazteek eta ohar-gabeen Peli eta Txirrikizen eskuek topo egiten dute.

KITTO